

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Genero-berdintasuna aurrekontu-politikan gaia eztabaidagai Ogasunak eta NBlk antolatutako jardunaldian

*Aranburu kontseilariak eta Olo kontseilariak inauguratu dute jarduera, toki-erakundeetako kudeatzaileei eta foru-administrazioko langileei zuzenduta*

Ostirala, 2018.eko azaroak 9

Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok toki-erakundeetako kudeatzaileei eta foru-administrazioko langileei zuzendutako jardunaldia inauguratu dute gaur, eta aurrekontu arduratsuei edo genero-ikuspegiko aurrekontuei buruzko gaia eztabaidatu dute.



Ezkerretik eskuinera, Alonso, Urrutia, Aranburu, Olo, Leranoz eta Jubeto.

"Aurrekontu-politikari genero-begirada" izenburuarekin aurkeztu dute saioa, eta sektore ekonomikoko, hezkuntzako eta berdintasuneko profesionalek sexu-arrazoien bidezko desberdintasunetan aurrekontu-politikek dituzten inplikazioen gaineko diagnostikoa egin dute.

Genero-ikuspegia duen aurrekontua egiteko, kontuan hartu behar dira emakumeen eta gizonen egoera eta premiak, genero-bretxak murrizten dituen eta generoaren desberdintasunak iraunarazten dituzten faktoreak ezabatzen eragiten duen, emakume zein gizonentzat emaitza berdina edo baliokidea bermatuaz. Ildo horretan, tresna garrantzitsua izatera iristen da, bi sexuen arteko berdintasuna lortzeko modu positiboan eragiteko gaitasuna du-eta.

Aranburu kontseilariaren iritziz, genero-ikuspegia sartzea izan da ziurrenik aurrekontu-teknikan azken hamarkadan izandako aldaketarik handiena. Aurrekontu-programei gehitutako genero-inpaktuaren agiriarekin batera (legealdi honetan lehen aldiz sartu dena), PFEZ estatistikak gizonen eta emakumeen arabera banakatuta eskaintzea bezalako ekintza txikiek gizartearen erradiografia hobea lortzen laguntzen dute, genero-aldeei dagokienean, aldi berean, berdintasunerako irtenbideak bilatzen laguntze aldera.

Ildo horretan, kontseilariak azaldu du "Berdintasun arloak gastuaren alderdian jorratzen dituen politikez haratago, zerga-politikak ere

berdintasuna bultzatzeko zeharkako jarduerak praktikan jar ditzakeela", eta horietako batzuk aipatu ditu; hala nola, babes fiskal handiagoa kirol-babeserako, klubak femeninoak badira; enplegua sortzeagatik dedukzio handiagoak, emakumeak kontratatzen badira; edo alarguentzako konpentsazioak PFEZ bidez.

Bestalde, Olo kontseilariak adierazi du Gobernuak konpromisoa duela genero-ikuspegia duten aurrekontuak ezartzeko: "konpromiso hori iaz agerian geratu zen Genero Ikuspegia duten Aurrekontuen Taldea eratuta; hain zuzen ere, Ogasuneko langileek, Nafarroako Berdintasunerako Institutukoek eta berdintasun-unitateetakoek osatu zuten". Halaber, Oloko gogora ekarri du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako egiten ari diren Foru Legearen Aurreproiektu berria, eta "legegintzaldi honetako funtsezko helburuetariko bat" dela esan du.



Jardunaldira hurbildutako herritarrak.

Bestalde, Nafarroako Estatistika Institutuak (Nastat) INAI/NABIrekin elkarlanean egindako Nafarroako diagnostikoa ere gogoratu du, Nafarroa berdintasun-indize handieneko eskualdeen rankingean aurkitzen baita. "Hala ere, -nabarmendu du-, genero-bretxa izugarriak daude oraindik, eta politika publikoak gauzatzeko arintzen ahaleginduko gara".

### **Hizlarien analisia**

Hizlarien artean, lehendabizi, Yolanda Jubeto Ruizek hitz egin du, EHUren eskutik Ekonomian doktorea denak, eta ekonomia feminista eta gizartearen iraunkortasunari egiten dion ekarpena aipatu ditu. Jubetorentzat, ekonomia feminista merkatutik kanpo geratzen diren oinarriko eta funtsezko praktikak kontuan hartzen dituen da; esate baterako, zaintzaren inguruko eginkizunak, jarduera ekonomiko gisa ez aitortzeagatik eta garapenerako, aldiz, funtsezkoak izateagatik.

Ondoren, Foru Exekutiboari proiektuan laguntzen dion LIKaDI Formación y Empleo SLko Isabel Alonso Cuervok generoaren ikuspegia aurrekontu publikoetan sartzeko metodologia zehaztu du; Nafarroarentzat lehen esperientzia izan dela esan du politika publikoen talde kudeatzaileei ezagutzak eta tresnak emateko, generoa haien erabaki eta jardueretan sartzea erraztearren.

Azkenik, aurrekontuen proiektuaren emaitzak azaltzeaz arduratu dira Mertxe Leranoz Goñi, INAI/NABIko zuzendari kudeatzailea, eta M<sup>a</sup> Begoña Urrutia Juanicotena, Aurrekontuen zuzendari nagusia. Etengabeko prozesua dela adierazi dute: "ezbairik gabe, lanean jarraitu behar da, metodologia emanaz, langileak trebatuz eta emaitzak ebaluatuz".

2017. urtean, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkarlanean, generoan inpaktu handiena zuten partiden analisia aurrez eginda, lanerako prozesua abian jarri zuen, eta bederatzi programaren analisia egin zuten (departamentu bakoitzeko bat), eta horiei Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiarena gehitu zitzaizen. Modu horretan, generoaren inpaktuaren azterketa teknikoa 10 programatan egin zen.

Testuinguru horretan, eta Nafarroako Gobernuak genero-ikuspegia kontuan hartzen duen aurrekontu-politikan hasitako lanarekin jarraituz, prestakuntza-jardunaldi hau antolatu da, 2018ko hirugarrena. Lehen saiora berdintasun-unitateetako pertsonak joan ziren eta bigarrenera 2019rako hautatutako 9 proiektuen kudeatzaileak.